

Ergobia, sagardo lehiaketa beteranoena

Astigarragako auzo honetan 1962. urtetik behintzat egiten da

duela ia mende erdia hasi ziren sagardo lehiaketa antolatzen Ergobian. Beraz, Euskal Herrian antolatzen diren lehiaketarik zaharrena litzateke. Ez da harrigarria, garai hartan Astigarragako auzo txiki honetan hamaika sagardotegi zeuden eta sagardoa betidanik biztanleen bizitzaren erdi-erdian izan da.

Hamaika sagardotegi eta sagardondok nonahi. Lehiaketaren alde antolatzaileko arduradun Joxe Mari Ubarretxena gogoratzen da zera esaten zuela aitak: «Ergobiako trenbide-pasagunetik Aforgaraino sagardondotik sagardondora lurra ukitu gabe joan zitekeen. Horrelakoa zen egoera haren garaiak». Egun arte, berriz, dezente aldatu da. Lehen, sagastiak, eta orain, errepideak eta trenbideak. Laster, agian, Abiadura Handiko Trenak beteko du paisaia.

Lehiaketa hasi zenean hauek ziren auzoko sagardogileak: Ramon Isasa, Otaño (J. Arrieta), M. Berrondo, A. Arzallus, Crispin Lete, Izaskun baserria, Bilandegi, Gurutzeta, Eduardo Alberro, Vda de Bereziartua eta Andres Irigoien. Haietako zortzi auzo erdian zeuden eta aipatutako lehen sei sagardogileak 1979. urtea baino lehenago desagertu ziren. Bilandegik, Ergobia eta Amara gaina artean kokatuta, hamarkada bat geroago itxi zituen ateak. Egun, lauk segitzen dute sagardoa egiten, baina auzoan bertan baka-



Ergobiako sagardo lehiaketaren epaimahalak jendearen aurrean egiten du bere zeregina.

rrak, Gurutzetak, Ergobi eta Martindegiko Oialume bidean. Beste hirurak leku handiago bila aterata ziren auzotik, Alberro 1961. urtean Hernanira joan zen, Bereziartua 1978. urtearen inguruan eta Irigoien-Herrero 2003. urtean. Azken bi horiek Astigarragan bertan eraiki zituzten sagardotegi berriak.

Horrelako sagardo giroan ez da batere harrigarria lehiaketaren bat antolatzea eta horrela da aspalditik. «1962. urtetik hona ziurtatuta dago auzoko festetan, abuztuaren amaieran, urtero egin direla sagardo lehiaketak. Lehenengo urteetan herrialdeko sagardogileek hartu zuten parte, baina urte batzuetan eskualde edota herri mailan ere egin izan da. 1982. urtetik hona, epaimahalakideez gain agertzen direnek

Zortzi sagardozale
parte hartzen
dute, gehienak
auzokoak

ere dastatzeko aukera izaten dute eta bost urte geroagotik puntuazioa ematen dute lehiaketa ofizialekin kanpo», dio Agustín Urreagak. Hark idazkari moduan datu guztiak gordetzen ditu, auzoko festa programa guztiak eta sagardo lehiaketaren akta esaterako. Txukun eramaten du gainera bere ardura.

Lehiaketa jendearen aurrean egiten da. Epaimahaia oholza batean egoten da sagardoa dastatzen eta bere puntuazioak erakusten. Talde hori zortzi sagardozale osatzen dute, gehienak auzokoak dira eta sagardoaren kolorea, usaina eta zaporea baloratzen dituzte. «Iaz, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak dastatze kurtso txiki bat egitea eta puntuazio irizpide berri bat onartzea proposatu zigu. Oso interesgarria iruditu zi-

tzagun eta onartu genuen. Egun koloreari bi, usainari hiru eta zaporeari bost puntu gehienez ere ematen zaizkie; beraz, sagardo ezin hobeak hamar puntu lortuko litzuke», diote antolatzaileek.

Baina jendea ez da ikusle soilak. Lehiaketan parte hartzen duten sagardo berak dastatzeko eta puntuazioa emateko aukera dute. Epaimahaia sagardo irabazleari emandako puntuazioa gehien hurbiltzen denak garaikurra jasotzen du.

«1991. urtetik hona, azken 18 lehiaketetan, Lizeaga sagardotegiak 14 garaikur lortu ditu hiru lehen sailkatuen artean egoteagatik, horien artean bost txapela. Palmaresekoak Irizar, Irigoien-Herrero, Bereziartua, Oiarbide, Gurutzeta, Rezola, Alberro eta abar dira», dio Urreagak.

BALEIO
Sagardo Naturala



Yerobi - Haundi baserria, Araneder BD. 16
20180 Oiarzun (Gipuzkoa)
Telef. 943 491 340 - MUG. 626 693 074

EGI-LYZE

ERRETEGIA-SAGARDOTEGIA



Zamalbide Auzoa
Tel. (943) 52 39 05
ERRETERIA

